

euskara zerbitzuak
zerbitzuak euskaraz



Berangoztar agurgarriak:

Berangon denbora luzea daramagu euskararen geroratzea familietan lantzeko ahaleginetan; oraingo honetan, euskarri hau prestatu dugu gure ahaleginak zertan gauzaten diren jakin dezazuen. Hala ere, zalantza barik, gurasook duzue zereginik behinena euskararen geroratzea bultzatzen zuen umeekin. Etxean, gerta daiteke gurasoetako bat euskalduna izatea eta bestea erdalduna, edo biak euskaldunak, edota biak erdaldunak. Nolanahi den, guztiok duzue zertan ahalegindu eta zertan lagundu: umea euskarazko eredueta matrikulatzen, eskolaz kanpoko ekintzetan, euskarazkoetara eramaten, ume-jagole euskalduna eskatzen, euskarazko jardueretan (zinema, antzerkia...) umearekin batera parte hartzen... Eta gainera, euskaraz dakizuenok umeari euskaraz egiten, eta ez dakizuenok euskaraz apur bat ikasten (umearekin moldatzeko adina).

Gogoan izan familia dela euskara geroratzeko biderik naturalen, errazen eta eraginkorrena. Hori horrela, zuen esku ipintzen dugu informazio hau guztia, lagungarri izango duzuelakoan.

- ▶ Ume jaioberrien gurasoentzako kanpaina
- ▶ 1-6 urteko umeen gurasoentzako kanpaina
- ▶ Euskara ikastaroak gurasoentzat
- ▶ Euskarazko ereduen aldeko kanpaina
- ▶ Umeentzako liburutegia
- ▶ Euskarazko Produktuen Katalogoa
- ▶ Ludoteka-Ludokluba-Gaztelekua
- ▶ Egutegia: Letren leihotik
- ▶ Udaleku irekiak
- ▶ Ipuin kontalariak, antzerkia, emanaldiak... euskaraz!
- ▶ Idazlan Lehiaketa
- ▶ Gurasoentzako tailer-ikastaroak
- ▶ Kultur ekintzak
- ▶ Musika Eskola
- ▶ Udalekua



Ume jaioberrien gurasoentzako kanpaina

Azalpena

Hizkuntza geroratzeko eta jasotzeko biderik errazen, berezkoen eta eraginkorrena familia da. Horretan oinarrituta, Berangoko Udalak euskararen aldeko sentiberatze-kanpaina antolatzen du urtero ume jaioberria eduki berri duten herriko familientzat.

Helburuak

Gurasoak euskararen transmisioa lantzearen garrantziaz jabetzea.

Hartzaileak

Jaioberrien gurasoak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua

Noiz

Urtean behin, umeak urtebete izan baino lehen.



1-6 urteko umeen gurasoentzako kanpaina

Azalpena

Hizkuntza geroratzeko eta jasotzeko biderik errazen, berezkoen eta eraginkorrena familia da. Horretan oinarrituta, Berangoko Udalak euskararen aldeko sentiberatze-kanpaina antolatzen du urtero urte batetik gorako umeak dauzkaten herriko familientzat, ume jaioberrien gurasoentzako kanpaina indartzeko.

Helburuak

Gurasoak euskararen transmisioa lantzearen garrantziaz jabetzea.

Hartzaileak

Urtebetetik gorako umeen gurasoak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua

Noiz

Erroldatzera datozenean.



Euskara ikastaroak gurasoentzat

Azalpena

Berangoko Udalak euskarazko eskolak antolatuak ditu eskola umeen gurasoei zuzenduak. Ikastaro hauek Kultur Etxean antolatzen dira, goizez eta arratsaldez; euskaltegi homologatueta euskara ikasteagatiko dirulaguntza bereziak ere eman ohi die udalak gurasoei.

Helburuak

Gurasoen euskara maila hobetzea edo euskaraz ikastea, umeekin erabil dezaten.

Hartzaileak

0-12 urte bitarteko umeak dauzkaten gurasoak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua

Noiz

Urritik maiatzera.



Euskarazko eredu aldeko kanpaina

Azalpena

Berangoko Udalak aurre-matrikulazio kanpaina antolatzen du urtero, gurasoek euskarazko ereduetan matrikula ditzaten 2 eta 3 urteko umeak. Halaber, batxilergoa eta lanbide heziketa euskaraz non ikas dezaketen jakinarazten zaie DBH bukatu duten gazteei.

Helburuak

Eskolan hasten diren umeak eta DBH bukatu dutenak euskarazko ereduetan matrikulatzera bultzatzea.

Hartzaileak

2-3 urteko umeak dituzten gurasoak eta DBH bukatu duten gazteak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua | Berangoko ikastetxeak
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila

Noiz

Aurre-matrikulazioa egin aurretik, urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran.



Umeentzako liburutegia

Azalpena

Umeentzako liburuz hornitutako gunea da honakoa. Bertan, euskarazko liburu eta gai berrien zerrendak daude eskura. Gainera, azpiegitura hori baliatuta, ikastetxeen bitartez ipuin-kontalarien saioak eta antzeko ekitaldiak antolatzen dira umeen eskola-orduetan.

Helburuak

Euskaraz irakurtzeko ohitura/zaletasuna bultzatzea umeen artean.

Hartzaileak

2-12 urte bitarteko umeak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua eta Kultur Arloa | Berangoko ikastetxea

Noiz

Liburutegian antolatzen diren ekintza osagarriak, ipuin-kontalariak, eta abar, ikasturtearen barruan antolatzen dira.



Ludoteka-Ludokluba-Gaztelekua

Azalpena

Euskaraz aritzeko gune iraunkorrak dira; ume eta gazteek olgetan gozatu dezaten. Barruan, hainbat txoko eta tailer izaten dira eta irteerak ere antolatzen dira.

Helburuak

Lagunarteko harremanetan, euskararen erabilera bultzatzea ume eta gazteen artean, jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatuta. Gazteei zuzendutako eskaintza zabaltzea.

Hartzaileak

Ludoteka: 3-12 urte. Ludokluba: 10-12 urte ostiraletan. Gaztelekua: 13-18 urte.

Argibideak

Berangoko Kultur Etxea

Noiz

Urte osoan zehar.

Letren leihotik



Azalpena

Horman eskegitzeko egutegia da **Letren leihotik**, euskal tradizio eta kulturarekin lotutako esaerak eta ohiturak batu eta euskal literaturaren testuak batzen dituena.

Helburuak

Euskararen erabilera areagotu ume eta ume eta gurasoen artean, modu didaktiko batean, irakurzaletasuna bultzatzea, euskal literatura ezagutzera emanda.

Hartzaileak

5-12 urte bitarteko umeak eta, oro har, Berangoko herritarrak

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua

Noiz

Egutegia urtea amaitu aurretik banatzen da, abenduan.



Euskarazko Produktuen Katalogoa

Azalpena

Merkatuan eskuragarri dauden euskarazko produktuez osatutako katalogoa da: jostailuak eta jokoak, musika, aldizkariak, filmak, liburuak, bideoak, informatika produktuak... **Oparitu euskaraz** kanpainaren barruan argitaratzen da, Gabonetan.

Helburuak

Euskaraz zer oparitu badagoela jakinaraztea.
Euskaraz bizitzen laguntzeko asmoz egindako katalogoa da.

Hartzaileak

Berangoko herritarrak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua

Noiz

Azaro-abenduan, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka baino lehen.





Udaleku irekiak Gazteuskaltegia

Azalpena

Udako oporretan antolatutako aisialdi gunea da udaleku irekia. Aisialdiko jardueraz gain, irteerak ere izaten dira: igerilekuetara, mendira... Goizeko ordutegian egiten da.

Helburuak

Udan, euskararen erabilera areagotu umeen artean aisialdiko jardueren bitartez.

Hartzaileak

6-12 urte bitarteko umeak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua

Noiz

Izena emateko epea maiatza inguruan hasten da, eta udalekuak uztailean izaten dira.



Antzerkia, ipuin kontalariak, ikuskitunak... euskaraz

Azalpena

Berangoko Kultur Arloak euskarazko film, antzerki-saio, ipuin kontalari eta musika-emanaldiak antolatzen ditu ume eta gaztetxoentzat. Berangoko Euskara Zerbitzuak antolatutako egitarau zehatzetan ere eskaintzen dira halakoak.

Helburuak

Euskarazko ikuskizunak ikustera joateko ohitura sortzea umeen eta gazteen artean.

Hartzaileak

4-16 urte bitarteko umeak eta gaztetxoak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua | Berangoko Kultur Arloa

Noiz

Urtean zehar; dena den, ikuskizun gehienak ikasturtearen barruan antolatzen dira.



Idazlan lehiaketa

Azalpena

Umeek idatzitako gutun lehiaketa antolatzen da Berangon "Olentzerori gutuna" izenburuarekin. Parte-hartzea saritzen da.

Helburuak

Euskaraz idazteko zaletasuna bultzatu ume eta gaztetxoan artean.

Hartzaileak

6 eta 12 urte bitarteko umeak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua eta Kultur Arloa

Noiz

Abenduan antolatzen da.



Gurasoentzako tailer-ikastaroak

Azalpena

Euskararen transmisioan laguntzeko asmoz, gurasoentzako ikastaro laburrak antolatuko dira Berangon, euskal jolasen gainean, eskolako gurasoen elkartearen laguntzarekin. Bestalde, mintzapraktika tailerra jarri da abian Kultur Etxean.

Helburuak

Umeen inguruko gai zehatzak gurasoekin lantzea.
Familia esparruan euskararen erabileran eragitea.

Hartzaileak

0-12 urte bitarteko umeak dituzten gurasoak eta bestelako senideak

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua

Noiz

Urtean zehar, ikasturtearen barruan.



Kultur ekintzak

Azalpena

Euskal tradizioarekin lotutako ekitaldiak eta jarduerak antolatu ohi dira herrian. Udalak, udalerriko elkarteek, dantza taldeak eta ikastetxeak antolatutako ekintzak dira.

Helburuak

Euskararen erabilera eta euskal ohiturak bultzatzea.

Hartzaileak

Herritar guztiak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua | Berangoko Kultur Arloa |
Berangoko ikastetxea | Berangoko elkarteak

Noiz

Urtean zehar: Agate Deuna otsailean, Olentzero abenduaren 24an, Inauteriak otsaila-martxoan...

Musika Eskola



Azalpena

Berangoko Musika Eskolan umeentzako musika eskolak eskaintzen dira euskaraz. Eskolak ikasturtearen barruan ematen dira.

Helburuak

Musika inguruko ikasketak ere euskaraz egitea.

Hartzaileak

5 urtetik gorako umeak.

Argibideak

Berangoko Musika Eskola

Noiz

Matrikula egiteko epea ekainean hasten da.



Udalekua

Azalpena

Gune euskaldunetan astebeteko egonaldia antolatzen da urtero.

Helburuak

Euskal giroan bizitzeko aukera ematea.

Hartzaileak

12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoak.

Argibideak

Berangoko Euskara Zerbitzua


Noiz

Uztailean antolatzen da urtero.



Berangoko Udala Euskara Zerbitzua

Elexalde, 3
48640 Berango

 946 680 008

 euskara@berango.org